

txostena





www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU
Zubiria Etxea Eraikina
Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU
Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU
Arabako Campuseko Liburutegia
Nieves Cano kalea, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87
Faxa: 945 01 42 87

1.	Aurkezpena	4
2.	Prestakuntza jarduerak	6
2.1.	Hegoa Institutuak eskainitako graduondokoak	6
2.2.	Hegoak antolatutako biltzarrak, jardunaldiak eta mintegiak	8
2.3.	Hegoa Institutuko irakasleek beste graduondoko batzuetan emandako unibertsitate irakaskuntza	10
2.4.	Hegoako irakasleek emandako hitzaldiak eta tailerrak	10
2.5.	Hegoako taldeak eta irakasle eta ikertzaileek beste ekitaldi batzuetan izandako lankidetzak	12
3.	Ikerketa jarduerak	13
3.1.	Ikerketa taldeak	13
3.2.	Beste ikerketa jarduera batzuk	26
3.3.	Doktorego tesiak	27
3.4.	Nazioarteko batzorde eta ordezkarietzako partaidetza	27
3.5.	Hitzaldiak eta komunikazioak	28
4.	Argitalpenak	31
4.1.	Liburuak	31
4.2.	Hegoa lan koadernoak	32
4.3.	Hegoak Zabalduz	32
4.4.	Hariak. Recreando la educación emancipadora	33
4.5.	Artikuluak, ikerketak eta liburu kapituluak	33
5.	Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak	36
5.1.	Dokumentazio Zentroaren zerbitzu digitalen 2019ko datuak	36
5.2.	Dokumentazio Zentroaren 2019ko multimedia berrikuntzak	38
6.	Aholkularitza zerbitzuak	39
6.1.	Erakundeei, aldundiei eta udalei eskainitako aholkularitza	39
7.	Erakundearen organigrama	40
8.	Txosten ekonomikoa	42

1. Aurkezpena

Hegoak 2019. urtean egin dituen jarduera akademiko eta sozial nagusiak jasotzen ditu memoria honek.

Horien artean, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da unibertsitate mailako irakaskuntza lana, gure hiru masterren bitartez eskainia. Horietako bi, *Globalizazioa eta Garapena* eta *Nazioarteko Lankidetzeta*, UPV/EHU gehien eskatzen diren berezko tituluen artean daude. Hirugarrena, *Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea*, berezko titulua da, eta online ematen da; 2019an hasi zuen bosgarren edizioa, hain zuzen ere. Horrez gain, master eta ikastaro ugari eman dira hainbat autonomia erkidego eta herrialdetan.

2019an hainbat jardunaldi, mintegi eta eztabaida topaketa antolatu ditugu, hainbat gairi buruzkoak, hala nola *Nazioarteko lankidetzaren ekarpenak bake positibo eta iraunkor baten eraikuntzarako* jardunaldiak (maiatzean), *Garapenaren inguruko pentsamendu kritikoak* eztabaida birtualeko zikloa (ekain-abenduan) eta *Askotarikoa ikuspegiak uztartzea. Epistemologia kritikoak, praktika unibertsitarioak dekonstruitzeko* eztabaida mintegia (abenduan).

Hegoaren funtsezko arloetako bat ikerketa da. Hainbat ikerketa talderen inguruan egituratuta dago arloa, garapen ikasketen hainbat esparru hartzen dituztenak. Talde horien argitalpen eta jarduerak biltzen dira memoria honetan. Nabarmentzekoa da, halaber, *Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programa*, Hegoak koordinatua eta *Bikaintasuneranzko aipamena* deituarekin saritua, erreferentzia saihestezina baita arlo horretan: 80 tesi matrikulatu zi-

ren 2019-2020 ikasturtean, eta horietatik 13 tesi 2019ko deialdian.

Hezkuntzaren eremuan aipatzekoa da VSF-Herrien Bidezko Elikadura erakundearekin izandako lankidetzeta, zeinari esker *Elikadurarako eta garapen jasangarrirako eskubideak genero ikuspegiarekin sustatzeko espazioak zabalduz, hezkuntza formalaren eremu guztietan hitzarmena gauzatu dugun*; aldi berean, beste bi hitzarmen jarri dira abian, AECIDek finantzatuak biak, Bidezko Elikaduraren eta Hegoaren arteko partzuergoaren esparruan. Era berean, unibertsitatean hezkuntza berritzeko prozesua sustatzen jarraitu da, *Hariak Ehunduz II: Construcción colectiva de propuestas de educación emancipadora en la Universidad* proiektuaren bitartez.

Gure lanaren beste oinarrietako bat Dokumentazio Zentroa da. Bertako datu baseak dagoeneko 20.760 erregistro ditu. Nabarmentzekoa da bertako Liburutegi Digitalak nazioartean duen proiektzioa, zeina garapenean eta nazioarteko lankidetzan espezializatutako gaztelaniazko datu base nagusietako bat den. Baliozko zerbitzua eskaintzen die erabiltzaile mota askori (akademikoak ez ezik, GGKEak, gizarte mugimenduak, erakunde publikoak, etab.), eta, horrez gainera, nazioartean UPV/EHUren izena zabalitzen laguntzen du.

Argitalpenen arloan, argitaratu ohi ditugun aldizkarien zenbaki berriak argitaratu dira 2019an, baita beste lan batzuk ere. Hala, lau *Lan koadernoak* argitaratu ditugu –erreferentziazko saila–, eta dagoeneko 80 ale kaleratu dira, guztira; *Hegoak Zabalduz* aldizkariaren sei ale berri, euskaraz eta

batez ere unibertsitateko ikasleei zuzendua; eta *Hariak. Recreando la educación emancipadora* aldizkariaren 7. eta 8. zenbakiak.

Bestalde, Hegoak Institutuak aholkularitza zerbitzuak eskaini dizkie hainbat erakunderi, hala nola Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eibar, Ermua, Hondarribia, Irun eta Ordiziako Udalak eta Kantabriako Gobernuko Gazteria eta Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia. Gainera, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria kudeatzen jarraitzen dugu, zeina harmonizazio eta gardentasunerako tresna den; zortzi euskal erakunde publikok parte hartzen dute bertan, Hegoako Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko ikerketa taldearen ikerketa eta aholkularitzaren emaitza gisa.

Gure lanean garrantzi handikoak izan dira beste herrialde batzuetako unibertsitateekin ditugun loturak. Nabarmentzekoa da Boliviako CIDES-UMSArekin dugun harremana, eta harekin ari gara 2015 Programa inplementatzen: *Fortalecimiento de derechos económicos de las mujeres y políticas públicas de economía solidaria en municipios de La Paz*; eta Caliko (Kolonbia) Unibertsitate Javeriarraren Kulturarteko Ikasketen Institutuarekin dugun harremana, zeinarekin gauzatzen ari garen *Paz territorial: fortalecimiento de actores locales para la construcción de paz y el desarrollo de modelos económicos alternativos en el Norte del Cauca* proiektua, eta izen bereko proiektuaren II. fasea.

Jarduera horiez gainera, Hegoako kideek, bai gure institutuan eta UPV/EHU, bai beste esparru batzuetan egiten dituzten

beste hainbat jarduera hartu behar dira kontuan. Hainbat aldizkaritako eta sare akademiko eta sozialetako argitalpen kontseiluetan parte hartzen dugu. Era askotako jarduerak egiten dira, eta guztiak dira erabakigarriak gure lanak dagokion eragin sozial, politiko eta akademikoa eduki dezan.

Karlos Pérez de Armiño

Hegoako zuzendaria



2. Prestakuntza jarduerak

2.1. Hegoa Institutuak eskainitako graduondokoak

Hegoak hainbat irakaskuntza motaren bidez gauzatzen du gizarte eraldaketarako prestakuntzaren eta hezkuntzaren jarduerak. Alde batetik, doktorego programaren bitartez, Goi Mailako Hezkuntzako Europako Ikasketen formatura (GHEE) egokitutako graduondoko ikastaro ofizialen bitartez eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eskainitako berezko tituluen bidez. Eta, beste alde batetik, Hegoa Institutuko kideek Espainiako, Europako eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan emandako hainbat graduondokoren bitartez (doktoregoak, maisutzak, espezializazioa eta diplomak). Azkenik, beste unibertsitate, GGKE eta erakunde batzuek eskatuta eskaintzen diren ikastaro, hitzaldi, tailer eta mintegiekin osatzen da jarduera hori guztia.

Doktorego programa

Garapenari buruzko Ikasketak *Doktorego Programa* UPV/EHUK Master eta Doktorego Eskolaren (MEDEA) bidez eskainitako doktoregoetako bat da. Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia, Soziologia 2 eta Enpresa Zuzenbidea sailek eta Gezki Institutuak parte hartzen dute bertan.

Garapenari buruzko Ikasketak *Doktorego Programak* ikerketa ildo hauek lantzen ditu: Garapena, globalizazioa eta nazioarteko ekonomia fluxuak; Nazioarteko ekonomia erakundeak eta ekonomia integrazioa; Garapenerako lankidetzak eta ekintza humanitarioa; Ingurumena eta garapen iraunkorra; Generoa eta garapena; Garapenaren finantzazioa eta mikro kredituak;

Landa garapena eta elikagaien segurtasuna; Tokiko garapena eta lurraldea; Migrazioa eta garapen partekatua; Giza garapenari eta iraunkortasunari egokitutako teknologiak; Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak; Gizarte bazterketa, pobrezia eta desberdintasuna; Gatazkak, segurtasuna eta garapena; Lan harremanak, giza eskubideak eta gizarte eskubideak eta enpresa transnazionalak; Kultura, komunikazioa eta garapena; Ongizatearen eta garapenaren adierazleak eta neurketa; Parte hartzea, demokrazia eta giza eskubideak; Ekonomia sozial eta solidarioa; Globalizazioaren prozesu soziokulturalak.

Programak eutsi egin dio 2011. urtean Hezkuntza Ministerioak emandako *Bikaintasunerako Aipamena* aintzatespenari. Aintzatespen hori, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa izan da gure erakundearentzat, eta bultzada handia eman dio garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren gaietan egiten den ikerketa lanari zein gai horien hedapenari, UPV/EHUren barruan nahiz kanpoan.

Graduondoko ofizialak

Globalizazioa eta Garapena masterra

UPV/EHUko berezko tituluetako bat da master hau. Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV sailek parte hartzen dute bertan. Ikerkuntzaren alorreko prestakuntza ematea du helburu nagusia, eta globalizazioaren fenomenoaren eta garapen prozesuen arteko loturaren azterketa du ardatza, giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspuntutik.

2019-2020 ikasturtean 86 eskaera jaso dira; 25 pertsona matrikulatu dira (17 emakume,



8 gizon) lehen sarrerakoak eta 6 bigarren matrikularako. Lehen sarrerako ikasleetatik, 16 Euskal Autonomia Erkidegokoak (EAE) dira, 6 Espainiako gainerako lurraldeetakoak, 1 Europar Batasunekoak eta 2 Latinoamerikakoak.

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren masterra

UPV/EHUren berezko tituluetako bat da master hori ere. Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV sailek parte hartzen dute. Ikasleei garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko prestakuntza profesionala ematea du helburu nagusia, funtsezko erreferentziatzat hartuta ekitate eta pobrezia aurkako borroka, giza garapena eta jasangarritasuna. 2019-2020 edizioan, aurreko urteetan bezala, aurretiko izen emate gehien izan duen masterretako bat izan da UPV/EHU; izan ere, 181 eskaera izan ditu, guztira. Matrikulatutako 22 lagunetatik (16 emakume, 10 gizon), 11 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira; 9 beste autonomia erkidego batzuetakoak; 2 Europar Batasunekoak, 3 Latinoamerikakoak eta 1 Afrikakoak.

Berezko tituluak

Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntza Askatzailea online masterra

Hegoa Institutuak koordinatutako master hori UPV/EHUren berezko titulua da, eta hezkuntza askatzailearen kontzeptuak eta praktikak hain modu zabalean lantzen dituen bakarra da Espainian. Graduondoko proposamen honen helburua da garapenerako lankidetzaren eta izaera kritiko eta askatzailea duen hezkuntza bultzatzeko gai diren subjektuak prestatzea, abiapuntu hartuta globalizazio neoliberalaren baitan gertatzen ari diren askotariko krisien aldibereketasunak ezaugarritutako errealitatearen analisi kritikoa.

Ikasleak praktika eta esperientzia alternatiboak ezagutzen trebatzea da helburua, kontuan hartu gabe beren jardura profesionala lankidetzarekin, hezkuntzarekin edo beste edozein lan eremurekin lotzen den; horretarako, gizartearen aldaketara bideratutako ekintza politiko kolektiboak gauzatzeko gaitasuna emango dieten ezagutzak, trebetasunak, balioak eta gaitasunak azpimarratuko dira, mundu bidezkoago eta zuzenago baten alde betiere.



Master honen V. edizioan, 2019-2020 ikasturtean, 24 pertsona matrikulatu dira (17 emakume, 7 gizon); 10 EAEkoak dira eta 14 Estatuko gainerako erkidegoetakoak.

2.2. Hegoak antolatutako biltzarrak, jardunaldiak eta mintegiak

Gradu Amaierako Lanetan (GAL) eta Master Amaierako Lanetan (MAL) ikasleei laguntza eta orientazioa emateko mintegiak, hezkuntza askatzailearen proposamenetik abiatuta
(Sarriko, martxoak 13, 20 eta 27)

Ekimen hau subjektuei (ikasleei) laguntzeko proposamen gisa sortu zen, ikasleen, irakasleen eta gizarte eragileen arteko lankidetzan eta elkarrizketa horizontalean oinarrituta. Mintegi hauen asmoa da ikasleei errealitatea ulertzeko, munduan kokatzeko eta hura eraldatzeko ikuspegi etikoak eta gaitasunak garatzen laguntzea, hezkuntza kritiko askatzailearen ikuspegia hedatuz, kasu honetan GALetan eta MALetan. 23 laguneko talde txikia osatzen dugu (11 ikasle, 6 irakasle eta 6 GGKE), eta 3 orduko 3 saiotan lantzen ditugu lanak, modu pertsonalizatuan, taldeak sortutako hausnarketa kolektiboetatik abiatuta.

Nazioarteko lankidetzaren ekarpenak bake positibo eta jasangarri baten osaeran
(Bilbo, maiatzak 9)

Bake Kritikoaren Eraikuntza proiektuaren esparruan garatutako jardunaldia. Gatazka testuinguruetan lankidetzan jarduteko gaitasun metodologikoak indartzea eta azterketa teorikoa egitea izan ditu helburu nagusiak.

Jardunaldian honako hauek parte hartu zuten hizlari gisa: Karlos Pérez de Armiño,

zeinak aurkeztu baitzuen sarrera esparru bat “Bake liberala eta bakearen eraikuntzari (BE) buruzko ikuspegi kritikoak” gaiari buruz; Jenny Pearce, “Tokiko eragileak, nazioaz haraindikoak eta BE” gaiari buruzko gogoetarekin; Carlos Martín Beristain “Giza eskubideak, nazioaz haraindiko justizia eta BE”; eta Kroc Institutuko Borja Paladini “BERako gizarte aliantza eraldatzaileak, Kolonbiako esperientziaren arabera”. Gonbidatutako hiru hizlariak egin zuten gogoeta nazioarteko lankide-tzak BEn betetzen duen zereginari buruz. Bizkaiko Batzar Nagusien Aretoan izan zen jardunaldia, eta 70 lagun inguruk parte hartu zuten.

Mahai-ingurua: Nazioarteko lankidetzaren eta bakearen eraikuntza. Ahalmenak, erronkak eta tresnak
(Bilbo, maiatzak 10)

Aurreko jardunaldiari jarraipena emanez, mahai-ingurua fokalizatuagoa izan zen, eta GGKEkiko elkarrizketan zentratu zen. Jarraian bi partetan egin zen. Lehenbizi, azterketak aurkeztu ziren: a) *Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzari buruzko diagnostikoa*, Sheida Bessozi eta Karlos Pérez de Armiñok osatua, eta euskal lankidetzaren erakunde eta GGKE nagusien datuetan oinarrituta; b) *Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gida metodologikoak* sailaren aurkezpena; c) GLEAren planteamenduak bakearen eraikuntzari buruz, Noemí de la Fuente aurkeztuak.

Bigarren partean, mahai-inguru bat izan zen, honako hauen parte hartzearekin: Antonio José Montoro (Mundubat erakunde); Itziar Caballero (CEAR-Euskadi); Eneko Calle (Paz con Dignidad); eta Analisa Lenti (Alboan Fundazioa). Lau pertsona horiek gogoeta egin zuten bakearen eraketari begirako lankidetzaren lanaren ikuspegiari, ahalmenei eta zailtasunei buruz.

2. Prestakuntza jarduerak

Mahai-ingurua Arrupe Etxean izan zen eta 30 lagunek parte hartu zuten.

Eztabaida birtualeko zikloa: Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak (2019ko ekaina-abendua)

Gogoeta eta eztabaida prozesua, garapenarekiko hiru ikuspegi kritiko hauen ingurukoa: 1) postgarapena eta beste alternatiba praktiko batzuk, 2) bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna, eta 3) iraunkortasun ekologikoa; *Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak*. Prozesua hiru eztabaida foro birtualen bitartez egituratu zen, UPV/EHUren egelapi plataforman, *blackboard collaborate* tresnaren bitartez. Foru bakoitzean 6 eztabaida saio dinamizatu ziren, batez beste saioko 25 parte hartzaileekin, eta hizlari hauekin:

■ *Postgarapena eta beste alternatiba praktiko batzuk*: Ana Patricia Cubillo Guevara (Huelvako Unibertsitatea), Juan Tellería Zueco (UPV/EHU), Alberto Acosta (Ekuadorreko Batzar Nazional Konstituziogilearen presidente ohia), Ana Fornés eta Nacho Martínez (AIETI), Amaia del Río eta Gema Celorio (Hegoa), eta Federico Demaria (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa).

■ *Bestelako feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna*: Yuderkis Espinosa (GLEFAS), Tica Moreno (Sempreviva Organização Feminista), Amaia Pérez Orozco (Colectiva XXX), Marta Cruells (Bartzelonako Udala), Margarita Junco (Afroféminas), Aniaiz Ariznabarreta (Osatze Feminista), Laura Vega (Paz y Solidaridad) eta R. Lucas Platero (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa).

■ *Iraunkortasun ekologikoa*: Roldán Muradian (Brasilgo Universidad Federal Flumi-

nense), Iñigo Capellán (Valladolideko Unibertsitatea), Esperanza Martínez (Acción Ecológica) eta Unai Pascual (Ikerbasque).

Eztabaida mintegia: Askotariko begiradak uztartzea. Epistemologia kritikoak, praktika unibertsitarioak dekonstruitzeko (Sarriko, abenduak 19)

Unibertsitateko eztabaida gunea, 5 orduz eztabaidatu genuen epistemologiek eta pedagogia kritikoek (hegoaldekoak, feministak, dekolonialak, etab.) politika neoliberalen berezko ezagutza erreproduktiboari aurre egiteko duten interesari buruz, eta, orobat, unibertsitatean esku hartzen duten eta hura eraldatzen duten subjektuak ahalduz dituzten jardunak gauzatzeko duten interesari buruz.



Nicolas Armando Herrera Farfánek jardun zuen. "Etika eta ekintza praktikoa jakintza-aren garapenean" hitzaldia aurkeztu zigun, eta, horrez gainera, espazioa dinamizatzen zeregina bete zuen, bertan bildutakoekin artean jakintzak eta ezagutzak trukatzeko. Espazio honetara gehien gonbidatu diren 5 pertsonak (Jone Martínez-Palacios, Soraya Ronquillo Peña, Francesc Imbernon Muñoz, Itziar Gandarias Goikoetxea eta Juan José Celorio Díaz) solasaldi formatuan jardun zuten, eta, horri esker, elkarrizketa guztiz emankorra sortu zen haien artean, batetik, eta haien eta talde laguntzailearen artean, bestetik.

2.3. Hegoa Institutuko irakasleek beste graduondoko batzuetan emandako unibertsitate irakaskuntza

Nazioarteko Lankidetzaren Dezentralizazioa: Bakea eta Garapena masterra. UPV/EHU. Mintegia: Generoa, gatazka eta bakearen eraikuntza.

Garapena, Lankidetzaren eta Ekintza Komunitarioa masterra. Ramón Llull Unibertsitatea, Bartzelona.

Nazioarteko Garapena Unibertsitate masterra; Nazioarteko Harremanak masterra; Nazioarteko Segurtasuna masterra: Politika Publikoak masterra; Institut Barcelona d'Estudis Internacionals (IBEI). Ikasgaia: Gender, Security and Development.

Diplomazia eta Nazioarteko Funtzio Publikoa masterra. CEI, Bartzelonako Unibertsitatea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa masterra. Gezki Institutua, UPV/EHU. Ikasgaia: Esku-hartze publikoa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS); ESS erakundearen Antolamendua eta administrazioa (finantza kudeaketa); ESS eta Garapenerako Lankidetzaren.

Ikasketak Feministak eta Generokoak masterra. Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea, UPV/EHU. Ikasgaiak: Ekonomia Feminista; Globalizazioaren Erronkak; Generoa, erakundeak eta politikak: saioak: "Zigorgabetasunaren kontrako borrokan emakumeen mugimenduaren partaidetza esperientziak".

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Baxilergoko eta Lanbide Heziketako Irakas-

leen Prestakuntza masterra. UPV/EHU. Ikasgaia: Ekonomia eta Enpresa Osagarriak Gizarte Zientzietan.

Finantzak eta Finantza Zuzendaritza masterra. UPV/EHU. Ikasgaiak: Finantza Korporatiboak; Mikrofinantzak.

Bakea, Gatazka eta Segurtasuna Masterra. Universidad Ramón Llull, Bartzelona.

Nazioarteko Harremanak eta Ikasketak Afrikarrak Masterra. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Ikasgaia: Globalizazioa, Eskualde mailako integrazioa eta garapenerako lankidetzaren Afrikan.

2.4. Hegoako irakasleek emandako hitzaldiak eta tailerrak

"Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntza". AULA-MUNDO programan emandako hitzaldia, Valentziako San Juan Bosco Ikastetxe Salestarra. Valentzia, otsailak 6.

"Garapenerako lankidetzaren sorrera eta bilakaera". *Garapeneraren eta lankidetzaren gaur egungo erronkak ekonomia globalean*, UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoan eta Mugarik gabeko Ekonomistak. Sarriko, otsailak 22.

"Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Eskubi-dea, larritasuna, premia". *Garapenerako Hezkuntza eta Garapenerako Jasangarriaren Helburuak Jardunaldi Nazionalak I*. Murtziako Unibertsitatea, otsailak 28.

"Garapenerako lankidetzaren iragana, oraina eta etorkizuna", *Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren* ikastaroaren II. eta III. edizioen 1 modulua, UPV/EHUko Lankidetzaren Bulegoa. Otsaila-martxoaren eta iraila-azaroaren.

2. Prestakuntza jarduerak

"Afrika gaur egungo munduko ekonomian", *Afrikako Errealitatea, Sarrera ikastaroa*, Grupo de Estudios Africanos (GEA) Taldea. Casa Encendida. Madril, martxoak 5.

"Armagabetzea, desmobilizazioa, gudari ohien birgizarteratzea eta berrintegrazioa", *Bake Eragiketak XXXV. eta XXXVI. Ikastaroak*, eta *Bake Misioetarako Behatzaile XXXIX. eta XL. Ikastaroak*, Lurreko Armadaren Gerra Eskola. Madril, martxoak 22, maiatzak 31, urriak 18 eta azaroak 22.

"The political economy of subnational transfers in Latin America", Alberto Hurtado Unibertsitatean emandako mintegia. Santiago (Txile), martxoak 28.

"The political economy of subnational transfers in Latin America", Talcako Unibertsitatean emandako mintegia, Santiagoko egoitza. Santiago (Txile), martxoak 28.

"The political economy of subnational transfers in Latin America", Gobernu Eskolan emandako mintegia, Adolfo Ibáñez Unibertsitatea. Santiago (Txile), martxoak 29.

"Genero ikuspegia duten Aurrekontuen inguruko tailerra", IVAP. Vitoria-Gasteiz, martxoaren 20tik apirilaren 13ra.

"Finanzas, energia, terra, coidados, datos: privados? ociais? A economía no seculo XXI", Esquerda Unitaria Europea/Esquerda Verde Nórdica (GUE/NGL). Santiago de Compostela, martxoaren 30etik apirilaren 8ra.

"Begirada feminista hezkuntza askatzaillean". *Aktibisten Eskolan* emandako hitzaldia, ISF Bizkaia. Bilbo, apirilak 11.

"La financiación de los ODS y el combate a la desigualdad", *La Agenda 2030 y el futuro de la Financiación del Desarrollo* udako ikastaroa, UPV/EHU. Ekainak 17.

"Tertulia dialógica sobre algunas bases y orientaciones pedagógicas para la transición alimentaria". 'Gozo' I. *Nazioarteko Jardunaldiak Eskola elikadura osasungarria eta iraunkorra*, txostena mahai-inguruan, Bidezko Elikadura. Bilbo, urriak 4.

"Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntza", *Garapenari, Lankidetzari eta Giza Garapenaren Teknologiei* buruzko XX. mintegia, Mugarik Gabeko Ingeniaritza-Euskal Herria. Bilbo, urriak 11.

"Nazioarteko lankidetzaren gaur egungo erronkak. Eraldaketa prozesuen esparru teorikoa eta ikuspegi estrategikoa", *Congrés Esport i Cooperació Internacional*. Bartzelona, urriak 17-18.

"Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak: Laguntzatik Koherentziara", Etiopia Utopia Fundazioaren X. urteurrena. Donostiako Aquariuma, urriak 24.

"Giza garapenaren kontzeptua", *Garapenari, Lankidetzari eta Giza Garapenaren Teknologiei* buruzko XX. mintegia, Mugarik Gabeko Ingeniaritza-Euskal Herria. Bilbo, urriak 25.

"Ekonomia feminista eta haren loturak Ekonomia Solidarioarekin. Prestakuntza ESSan, REASen ikastaroa", REAS Euskadi. Bilbo, urria.

"Ni izango naiz erabakitzen dudana, Seré yo quien decida", Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco, Barneko Ekintza. Vitoria-Gasteiz, azaroak 27.

"Lurraldeak patriarkatuaz gabetzeko eta deskolonizatzeke eta bizitza sarearen aldeko proposamen feministak. Ekofeminismoa". *Gatazkan dauden lurraldeak nazioarteko online ikastaroa: Irtenbideak, ikuspegi partekatuak eta taldeko prozesuak eraikiz* (3. modulua), Gernika Gogoratuz. Azaroaren 4tik 10era.

"Saharar emakumeen memoria historikoa", Marienea Emakumeen Etxean egindako tailerra. Basauri, azaroak 13.

"Unibertsitatea hezkuntzarako eta gizartearen eraldaketarako gune", *Postgarapena eta bestelako alternatiba praktikoak* Eztabaida Foroan aurkeztua. Hegoa. Online, azaroak 18.

"Garapenerako Politiken koherentzia eta jasangarritasuna", *Langileentzako Prestakuntza ikastaroa*, Bizkaiko Foru Aldundia, BFA. Bilbo, azaroak 22.

"Irakurketa feminista gatazka egoerei eta gatazka ondorengo egoerei. Nazioaz harandiko justizia prozesuetan emakumeen errealitatea agerian uzteko giltzarri orokorrak", *Bakearen eraikuntza Kolonbian: emakume ezagunen ahotsak eta esperientziak* Mintegira gonbidatutako txostena, Oxfam, CPC, Emakumearen etxea, FUNSAREP eta Vamos Mujer. Bilbo, abenduak 12.

"Lurralde bakearen erronkak", Mintegi nazionala: *Paz Territorial y Mejoramiento Rural en el Posconflicto*, Sucre (Kolonbia).

"Gosea dutenei jaten emateko betebeharrak etikoari buruz", Nazioarteko workshopa: *Esku-hartze estrategiak bazterketaren aurrean: elikadura burujabetza*, Urbanelika, Bilbo.

2.5. Hegoako taldeak eta irakasle eta ikertzaileek beste ekitaldi batzuetan izandako lankidetzak

Garapena eta lankidetzak birpentsatzea krisian dagoen munduan elkarrizketa mahian parte hartzea, Coordinadora de ONGD-España, Barcelona Centre for International Affairs (CIDOB) eta Red Espa-

ñola de Estudios del Desarrollo (REEDES), martxoak 27.

Brigitte Vasallo eta Daniel Bernabé hizlarien aurkezpena UPV/EHUren udako IV. ikastaroan: *Demokrazia eza, ismoak. Unibertsalako migrazio politiken aurrean*, Gernika gogoratuz. Gernika-Lumo, ekainak 19-20.

Justicia en clave feminista UPV/EHUren udako ikastaroaren Batzorde antolatzaileko partaide. Bilbo, uztailak 9-10.

Gizarte eraldaketarako Hezkuntzaren II. Jardunaldiak. Pedagogia politikarik gabe? Zenbait hausnarketa herri-hezkuntzatik, metodologia feministetatik eta metodologia dekolonialetatik abiatuta jardunaldien Antolatzailekide, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Hegoa. Vitoria-Gasteiz, irailak 20-21.

Environmental and social footprint of the UPV / EHU: How to reduce our impact? Mintegiaren antolamendua, Bizkaia Areatoa (Bilbo), urriak 9.

"Giza Eskubideak eta lurralde okupatuak" tailerra aurkeztea eta moderatzea, *Saharako Herriekiko Elkartasuna* Koordinatze-ko Europako 44. Konferentzia (EUCOCO). Vitoria-Gasteiz, azaroak 22-23.

Unibertsitatea eta Garapenerako Lankidetzak VIII. Biltzarra. Ezagutza eta gizarte konpromisoa erronka globalen aurrean Biltzarraren Batzorde Zientifikoan parte hartzea, Rede Galega de Cooperación Universitaria ao Desenvolvimento (RGCUD). Santiago de Compostela, azaroak 27-29.

"Genero berdintasuna" ikasgaiaren irakasle lankidetzak, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea – Arabako Saila (UPV/EHU). Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 8tik 2019ko apirilaren 20ra.

3. Ikerketa jarduerak

3.1. Ikerketa taldeak

Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa

Tokiko Giza Garapena taldeak bi oinarri teoriko hauen barruan kokatzen ditu bere jarduerak: a) giza garapena arau erreferentzia gisa hartzea, gaitasunen ikuspegi oinarrituta, zeinak hartzen dituen pertsonen, erakundeen eta gizartearen aukeren eta indarguneen garapena ebaluatzeko gune garrantzitsutzat, b) tokiko dimentsioa, non lurraldea hartzen den garapena aztertzeko erreferentziatzat. Tokiko dimentsioa proposatzen da, esparru egokitzat hartzen delako giza garapenari atxikitako aldaketa prozesuak aztertzeko, baita horien zailtasunak eta horiek sendotzeko aukerak azaltzen dituzten dinamika aztertzeko ere.

2019an zehar, ikerketa jarduerak batez ere ekonomia sozial eta solidarioari lotuta egon dira, bai Hegoak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzaketarekin gauzatzen dituen programei eta lankidetzaren proiektuei lotuta (jarraian deskribatuko dira), bai Hegoako kideek REAS Euskadiko hainbat talde eta lan batzordeekin duten lankidetzaren testuinguruan.

Esparru horretan, taldekideek hainbat artikulu argitaratu dituzte eta hainbat ikastaro, hitzaldi eta kongresu akademikotan parte hartu dute.

Parte hartzaileak: Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, Efrén Areskurrinaga, Edu Bidaurratzaga, M.^a Luz de la Cal, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Juankar Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba.

Emakumeen eskubide ekonomikoak eta ekonomia solidarioako politika publikoak sendotzea La Pazeko udaletan (Bolivia) (PGM-2015BA/010)

Bolivian gauzatu da programa, tokiko partzuergo batekin. Partzuergo hori honako hauek osatu dute: San Andrés Unibertsitate Nagusiko (UMSA) Garapen Zientzietako graduondokoak (CIDES) eta Boliviako Campesinado Ikerketa eta Sustapenerako Zentroak (CIPCA). Euskadiko jarduerak ere hartzen ditu bere baitan. Boliviako goi-ordoki baketsuan esku hartzen duten udalerrietako emakume elkarteak ahaldundutza ahalbidetuko duten baldintzak sortzen laguntzea eta ekonomia solidarioako tokiko politika publikoetan eragitea bilatzen du, justizia eta zuzentasun esparruan betiere.

Programa lau osagaien inguruan egituratzen da:

- Emakume elkarteak, produktiboak eta zerbitzuen alorrekoak, indartzea.
- Tokiko gobernuei laguntza ematea, tokiko garapen ekonomiko solidarioa eta inklusiboa bultzatzeko.



■ Unibertsitate publikoa tokiko garapenaren eta garapen nazional solidarioaren eraikuntza kontzeptual eta politikoa sustatzen duen eragile gisa. Ikuspegi horretatik, *Una pata en la chacra eta una en el mercado: Multiactividad y reconfiguración rural en La Paz* (Nico Tassi eta María Elena Canedo) ikerketa osatu da 2019an.

■ Garapenerako hezkuntza, prestakuntza eta ikerketa Euskadin bertan, eta horren zeharkakotasuna Bolivian, Tokiko Giza Garapen Iraunkorrerako Ataria (www.dhls.hegoa.ehu.eus), baita Andeetako herrialdeetako beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea eta sarean lan egitea ere, ekonomia sozial, solidario eta komunitarioaren subjektuen artikulazioa indartuz.

GLEAren finantzaketa 1.197.332 eurokoa da, eta programaren zenbateko osoa 1.414.359 eurokoa, Boliviako kofinantza-teketein eta ekarpenekin batera. Gauzatze-ko epea 2020ko ekainera artekoa da.

Lurralde bakea: Caucaeren iparraldean tokiko eragileak sendotzea bakea eraikitzeko eta eredu ekonomiko alternatiboak garatzeko
(PRO-2017K2/004)

Proiektua GLEAren 2017ko deialdian onartu zen, 2018an eta 2019an garatzeko xedez, eta Kolonbian (Caucaeren iparraldean) eta Euskadin gauzatu da, Caliko Javierar Unibertsitateko Kulturarteko Ikasketen Institutuarekin batera. Proiektua honako hauek osatu dute:

■ IEIren eta Hegoaren arteko ikerketa prozesu bat, zeinaren ondorioz sortu baiten dokumentu hau: *Elkarrizketa sozial kulturartekoa, itzultze prozesuak hartzen dituzten lurralde kulturantzunetan. Bakearen eraikuntzari ekarpena.*

■ Prestakuntza programa bat Caucaeren Iparraldean, Euskadin trebatua (urrian), nekazari erakundeen, komunitate indigenen eta afrikar ondorengoen ESS eragileei zuzendua, eta baita FARCEko gudari ohiei ere. Prestakuntzan hainbat erakundek parte hartu dute: Lanki Institutua, REAS Euskadi, EHNE Bizkaia, HAZI Arkaute, Azaro Fundazioa, eta bisitatu ziren kooperatibak.

■ Sentsibilizazio jarduerak Euskadin, Kolonbiako bake prozesuari laguntzeko, eta, besteak beste, ekainean Caucaeko Eskualde Kontseilu Indigenaren (CRIC) ordezkari bati arreta ematea, zenbait euskal erakundetara bisitak eginda.

GLEAren finantzaketa 283.846,62 eurokoa da, eta proiektuaren zenbateko osoa, kofinantza-teketein batera, 357.487,42 eurokoa.

Lurralde bakea: Caucaeren iparraldean tokiko eragileak sendotzea bakea eraikitzeko eta eredu ekonomiko alternatiboak garatzeko, II. fasea
(PRO-2018K1/0148)

Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPk 2017an sinatutako bake akordioaren esparruan kokatzen da proiektua, borrokalari ohiak berriro lanean hasteko eta Kolonbiako gizartea adiskidetzera eramateko. Jarraipena ematen dio 2017an hasitako I. faseari. Fase horrek nekazarien, indigenen eta afrikar ondorengoen tokiko nekazaritza ekoizpen erakundeetako liderrak indartzea sustatzen du, FARC-EPko borrokalari ohiekin batera, Caucaeko iparraldeko bi landa udalerritan (Buenos Aires eta Caldono), gizarte ekonomia solidario eta komunitarioaren ikuspegi partekatutik, generoaren eta belaunaldien integrazioaren ikuspegiekin. Gaikuntza eta sentsibilizazio prozesu horretatik abiatuta, 2019an eta 2020an

3. Ikerketa jarduerak

garatzen den proiektuak honako ekintza hauek aurreikusten ditu:

■ Nekazaritzako produkzio ekimenei laguntzea, gizarte ekonomia solidario eta komunitarioko esperientzia pilotu gisa, laguntza teknikoaren eta merkaturatze estrategiaren bidez.

■ Gaitasun indibidualen eta kolektiboen garapena, ESSko diplomaren edizio berri batekin, Caucako iparraldean gizarte oinarri bat sortzeko eta horrela politika publikoetan eragiteko. Emakumeen elkarteetarako, haien ahalduntze ekonomikorako eta lidergo komunitariorako diploma.

■ Tokiko erakundeak indartzea, bake prozesuan berriz sartzeko, adiskidetzeko eta sozializatzeko mintegi eta tailerren bidez.

GLEAren finantzaketa 300.000 eurokoa da, eta proiektuaren zenbateko osoa, kofinantzaketekin batera, 383.753,84 eurokoa.

Gatazkak, bakea eta garapena

Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldea

Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldea, 2010az geroztik lanean diharduena; gaur egun Euskal Unibertsitate Sistemako A kategoriako ikerketa talde gisa onartu du Eusko Jaurlaritzak (goreneko aintzatespena). 2016-2021 urteetan erakundeen eta finantzen laguntza izan du.

Talde honen ikerketa ildoak honako hauek dira: 1) Giza segurtasunaren eta tokiko giza garapenaren kontzeptuen azterketa; 2) To-

kiko giza garapena, politika publikoak eta lurraldea; 3) Merkataritza eta inbertsioari buruzko nazioarteko akordioak, nazioz gaindikoen enpresak eta giza garapena; 4) Bakea eta justizia trantsizionala eraikitzekeko prozesuak; 5) Feminismoa, gatazka armatuak eta bakearen eraikuntza.

Aurten, ikerkuntzan ez ezik, ikerketen ondoriozko ezagutzaren transferentzian ere zentratu da taldea, eta topaketa zientifiko nazional eta nazioartekoetan parte hartu du, prestakuntza arautuaren zein arautu gabearen bitartez, eta argitalpenak egin eta zabaldu ditu.

Aurten, bestalde, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak, Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+b Estatuko Programaren esparruan, honako ikerketa proiektu hau onartu du: *Kolonbian EBko bakea eraikitzekeko politikak. Gizarte zibila eta giza eskubideak indartzean oinarritutako eredu baterantz? (UECOLPEACE)*. Proiektu hori 2019-2021 bitartean gauzatuko da, eta EBk Kolonbian bakea eraikitzekeko politiketatik eratorritako ikasgaiak aztertu nahi ditu, zehazki, gizarte zibilari eta giza eskubideen aldeko erakunde eta ekimenei emandako babesari dagokionez. Bertan ikerketa talde honetako hainbat kidek parte hartzen dute: Karlos Perez de Armiño (ikertzaile nagusia), Eduardo Bidaurratzaga, Irantzu Mendia eta Juan Tellería.

Kideak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Leire Agirreazkuenaga Onaindia (doktorego aurreko kontratua), Jokin Alberdi Bidaguren, Sheida Besozzi (kontratupeko langile ikertzailea - KLI), Eduardo Bidaurratzaga Aurre, M.^a Ángeles Díez López, Yolanda Jubeto Ruiz, Mercedes Larrañaga Sarriegi, Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao (KLI), Rakel Oion Encina, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Juan Tellería Zueco, Unai

Villalba Egiluz, Francisco Zabalo Arena eta Iker Zirion Landaluze.

**Bake Kritikoaren eraikuntza:
gatazkari buruz sentikorra den
euskal lankidetzarako esparru
kontzeptuala eta metodologikoa**

(PRO-2016K3/010)

GLEAk finantzatu du, 183.574,46 €-ko dirulaguntzarekin. Proiektu horrek hainbat jarduera biltzen ditu bakea eraikitzeko ikuspegi kritikoei buruzko esparru teoriko bat egiteko, diziplina anitzekoa eta lankidetzari aplikatu beharreko esparru tematikoetan oinarritua.

2019an amaitu zen proiektua, hainbat produktorekin, hala nola taldeko liburu honekin: *Pax Crítica: aportaciones teóricas a las perspectivas de paz posliberal* (Karlos Pérez de Armiño eta Iker Zirion Landaluze, koordinatzaileak). Hainbat eremutako eta herrialdetako 13 adituk egindako ekarpenak biltzen ditu lanak, "Bake postliberalak" bake ikasketen esparruan sortutako eztabaidei buruzkoak.

Horrez gainera, *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak* izeneko gidaliburu argitaratu eta aurkeztu zen, euskarazko eta gaztelaniazko 5 gida teoriko-metodologikorekin. Gidaliburu horiek hainbat gai lantzen dituzte: "Gatazkarekiko sentikorrak" diren azterketa eta plangintza tresnak; biktimei eta giza eskubideen defendatzaileei laguntza; genero ikuspuntua gatazketan; bakea eraikitzea kulturen arteko testuinguruetan; elkartasuna eta nazioarteko lankidetzaren erresistentzia esperientziekin.

Prestakuntzari dagokionez, hausnarketarako eta eztabaidarako hiru jarduera egin ziren:



■ **Jardunaldia:** Nazioarteko lankidetzaren ekarpenak bake positibo eta jasangarria eraikitzeko (Bilbo, maiatzak 9).

■ **Hizketaldia:** Nazioarteko lankidetzaren eta bakearen eraikuntza. Ahalmenak, erronkak eta tresnak, GGKE talde fokalizatu baten eta lankidetzaren erakunde publikoen parte hartzearekin (Bilbo, maiatzak 10).

■ **Nazioarteko lankidetzaren eta giza eskubideen inguruko lana.** Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako Gida Metodologikoa. Elkarrizketa Guatemalako erakundeekin eta haien artean (Guatemala Hiria, Zigorgabetasunaren Kontrako Nazioarteko Plataformarekin lankidetzan).

Kideak: Karlos Pérez de Armiño, Sheida Besozzi, Gloria Guzmán, Irantzu Mendia, Itziar Mujika eta Iker Zirion. Kolaboratzaileak: Cecile Barbeito, Tania Rodríguez, Carlos Martín Beristain, Anabella Sibrián, Oscar Mateos, Vicent Martínez, Daniela Nascimento, Francisco Giménez, Judith Nora Hardt, Jürgen Scheffran, Esteban Ramos.

3. Ikerketa jarduerak

Egiaren Batzordearen lurraldez kanpoko presentzia, Espainiako Estatuan eta Europako beste herrialde batzuetan dauden kanpoko biktimekin eta erbesteratuta daudenekin garatzeko bere agintaldia
(Exp. 2019/00888)

2019ko azken lauhilekoan, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak zuzeneko dirulaguntza eman zion Hegoa elkarteari, Kolonbiako Egia, Bizikidetzeta eta Ez Errepikatze Batzordearen agindua garatzen laguntzeko. 114.015 euroko zenbatekoa izan zen.

Helburua izan zen hainbat prozesutan laguntzea –argitzeko, aitortzeko, bizikidetzarako eta ez errepikatze prozesuetan–, Espainiako Estatuan eta Europan dauden kanpoko biktimen eta erbesteratuen parte hartzearen bidez, Egiaren Batzordeak Kolonbian ikusgai jar zitzan. Bestek beste honako jardura hauek egin ziren:

- Prestakuntza tailer bat elkarrizketatzailerentzat.
- Arreta psikosozialeko profesionalen prestakuntzarako tailer bat.
- Kanpoan dauden eta erbesteratuak diren kolonbiar biktimen lekukotzen bilketa Espainian eta Europako beste hamar herrialdetan.
- Egiaren aldeko Topaketaren bigarren Prestakuntza Topaketa, erbesteratutako kolonbiarren bigarren belaunaldiari eskainia.

Trantsiziozko Justizia Programa
(98331 Proiektua)

Kolonbiako Egiaren Batzordeari laguntzeko prozesuaren barruan, 2019an NBGPrekin lankidetzan hasi zen, 70.000 dolarreko finantziazioarekin, erbesteratuta dauden biktima kolonbiarrei elkarrizketak egiten jarraitzeko, 2020an Egiaren Aldeko Topaketa antolatzeko eta biktimen esperientziak eta testigantzak oinarri hartuta eleberri grafiko bat egiteko.

Feminismoa eta gatazkak

Ikerketa ildo honek gatazka armatuen azterketa feminista, bakearen eraikuntza, justizia trantsizionala eta memoria historikoa ditu ardatz.

Egindako jardueretako batzuk honako proiektu hauetan kokatzen dira: *Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzarako esparru kontzeptual eta metodologikoa* eta *Justizia trantsizional kritiko eta feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoren zigorgabetasun patriarkalari aurre egiteko baliabideak*.

2018ko maiatzean Hegoak eta SIMReFek elkarrekin antolatutako *Ikerketa feministaren metodologiari buruzko IV. Jardunaldiak: indarkeriak eta erresistentziak* jardunaldien emaitza gisa, 2019an *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad* (Martha Patricia Castañeda Salgado et al.) liburua argitaratu zen, eta 11 egilek parte hartu zuten.



Kapituluetako bi Lan Koadernoak aldizkarian argitaratu ziren, euskaraz: “Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak” (Martha Patricia Castañeda Salgado, UNAM); eta “Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra” (Diana Marcela Gómez Correal, Cider, Andeetako Unibertsitatea, Kolonbia).

Ildo horretan, gida metodologikoa ere euskaraz argitaratu zen: *Mendebaldeko Saharako Emakumeen Memoria Historikoa* (Irantzu Mendia Azkue eta Gloria Guzmán Orellana).

“Bakearen aldeko aktibismo feministaren mapa” tresna digitalean landutako edukien ildotik, non biltzen den zigorgabetasunaren kontra munduko hainbat lekutan emakumeen mugimenduaren esperientziei buruzko informazioa, liburu hau editatu eta argitaratu zen: *“La justicia nunca estuvo de nuestro lado”. Peritaje cultural sobre conflictos armados y violencia sexual en el caso Sepur Zarco, Guatemala*. Era berean, liburuaren jendaurreko aurkezpen bat egin zen peritutzaren egilearekin, Irma Alicia Velásquez Nimatuj.

Kideak: Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Itziar Mujika, Iker Zirion. SIMReFeko kolaboratzaileak: Jokin Azpiazu, Marta Barba, Marta Luxan. Beste kolaboratzaile batzuk: David Beorlegui Zarranz, Irene Cardona Curcó, Patricia Castañeda Salgado, Olatz Dañobeitia Ceballos, Amandine Fulchiron, Diana Gómez Correal, Julie Guillerot, Matxalen Legarreta Iza, Tania Martínez Portugal, Rocío Medina Martín, Diana Montealegre, Ana M.^a Palacios, Irma Alicia Velásquez Nimatuj.

Justizia trantsizional kritiko eta feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoren zigorgabetasun patriarkalari aurre egiteko baliabideak

(PRO-2018K3/0031)

GLEAk finantzatu du proiektua, 161.426,23 euroko dirulaguntzarekin. Proiektuaren helburu nagusia honako hau da: euskal lankidetzako eragileek, unibertsitatekoek, mugimendu feministakoek eta bakearen eta giza eskubideen eraikuntzarekin lotutako euskal erakundeetakoek baliabide nahikoak izatea, halako eran non, zein bere jardun eremuetatik abiatuta, justizia trantsizional kritiko eta feministako praktikak bultzatzen, emakumeei eskaini ahal izateko egiaren, justiziaren, erreparazioaren eskubidea eta berriro ez gertatzeko bermeak.

2019an jarri zen abian genero ikuspegiaren hainbat maila kontuan hartu dituzten egiaren batzordeei buruzko lehenengo ikerketa, bost kasu azterketen hautaketarekin: Kolonbia (Diana Gómez Correal ikertzailea), Peru (Julie Guillerot), Guatemala (Gloria Guzmán), Sierra Leona (iker zirion), Hegoafrika (Irantzu Mendia Azkue). Era berean, justizia eta erreparaziorako es-

3. Ikerketa jarduerak

trategia feministei buruzko beste ikerketa bat jarri zen abian, Kolonbian eta Guatemalan izandako esperientzietatik abiatuta, eta bost pertsona hauek parte hartu zuten: Diana Gómez Correal, Diana Montealegre, Gloria Guzmán, Amandine Fulchiron eta Irantzu Mendia Azkue.

Era berean, dokumental baten gidoia diseinatu eta grabatu da, Guatemalako mugimendu feministak emakumeek justiziarako eta erreparaziorako aukera eduki dezaten ezarritako estrategiei buruz.


Bakearen, giza eskubideen eta memoria-
ren esparruarekin zerikusia duten erakunde-
deen politika publikoko funtsezko doku-
mentuei dagokienez genero ikuspegiak
gaur egun duen inklusio mailari buruzko
oinarrizko diagnostiko bat landu da, eta
gatazka armatuetan giza eskubideak ba-
besteko nazioarteko tresnei buruzko bi
dosier prestatu dira: sexu indarkeriari
buruzkoa bata, eta eskubide ekonomiko,
sozial eta kulturei buruzkoa bestea.

Giza Eskubideak Mendebaldeko Saharan

2019an *Giza eskubideen urraketei aurre egiterakoan eragina areagotzeko ikerketa eta ahalmenen garapena Mendebaldeko Saharan* (III. fasea) proiektua egin zen, Euskal Fondoak finantzatua.

Giza Eskubideei buruzko Saharako Lantaldea (GST) eratu zen, AFAPREDESAko, ASVDHko eta CODESAko kide espezializatuek osatua, erakundeak artikulatzeko eta giza eskubideen arloan ikertzeko eta eragiteko balio duten gaitasunak sendotzeko helburuarekin; horrez gain, sortutako ezagutzak kideen artean erreplikatzeko tresnak eman zitzaizkien.

GST indartzeko, derrigorrezko desagertzearen eta atxiloketa arbitrarioen gaiak hartu ziren ardatz, *Dokumentazioa eta intzidentzia derrigorrezko desagertzei eta atxiloketa bidegabei buruz* online ikastaroaren bidez eta erakundeei beren salaketa eta intzidentzia ekintzetan aholkularitza espezializatua emanaz. Gabriella Citroni eta Helena Rodríguez-Bronchú nazioarteko adituak izan ziren prozesuan laguntzaile.



Antolatzaileek ikus-entzunezko materiala dute ikastaroaren edukiekin, eta Gida Metodologiko bat gaztelaniaz eta arabieraz. Sortutako tresnei esker, GSTko kideek jasotako prestakuntza erreplikatu ahal izan zuten, eta beste gai batzuei buruzko prestakuntza eman zieten kideei eta giza eskubideen aldeko beste ekintzaile eta defendatzaile batzuei.

CODESA atxiloketa arbitrarioari buruzko ikerketa baten buru izan zen, eta horren atariko emaitzak *Détention Arbitraire à des raisons politiques au Sahara Occidental. De 1976 á 2019* txostenean agertu ziren. Txostena Gasteizen egindako 44. EUCOCON aurkeztu zuen Ali Salem Tamek-ek,

CODESAko presidenteorde eta preso politiko ohiak. Giza eskubideen urraketen biktimei aholkularitza juridikoa emateko laguntza eman zitzaion ASVDHri, eta, gainera, okupatutako Aaiunen duen egoitzari eutsiko zitzaiola bermatu zen. AFAPRE-DESAk, bere aldetik, desagertutako sahararren senideen DNA laginak jasotzen jarraitu zuen; gaur egun, 198 lagin daude gordeta UPV/EHUko laborategietan.

2019. urtearen amaieran, proiektuaren IV. fasea hasi zen. Emakume sahararren giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa eta eskubide zibil eta politikoen inguruko erakunde sahararren txostenak dira fase horren ardatz nagusia.

Kideak: Carlos Martín Beristain, Tatiana Montenegro, Gloria Guzmán, Irantzu Mendia Azkue. Kolaboratzaileak: Gabriella Citroni, Helena Rodríguez-Bronchú, Francisco Etxeberria.

Garapenerako politiken eta nazioarteko lankidetzaren koherentzia

UPV/EHUK 2018-2020 aldirako ikerketa talde gisa onartutako ikerketa ildoek nazioarteko garapenari eta lankidetzari buruzko eztabaiden eta gai horien inguruko proposamenen azterketa kritikoa dute ardatz.

Taldearen lan arloen artean, Agenda 2030en azterketa eta Garapen Jasangarriko Helburuak daude, inplikazioak, ezarpena, ondorioak eta kontraesanak azpimarratuz. Ildo horretan, Garapenerako Politiken Koherentziaren zeregina ere aztertzen da, eta baita nazioarteko lankidetzaren sistema, haren eragileak eta tresnak ere.

Taldearen lanak arreta jartzen du erakunde dezentralizatuen edo unibertsitateen rolean, zeharkako gaietan (hala nola garapen gaietan genero joerekin zerikusia dutenetan), edo elikadura subiranotasunarekin zerikusia duten alderdietan, besteak beste.

2019an, taldeko kide Iratxe Amianok bere tesia defendatu zuen: "La Responsabilidad Social Universitaria desde la perspectiva de la pertinencia social: Mecanismos de interlocución con la sociedad en el caso de las universidades españolas", Koldo Unceta eta Jorge Gutierrezek zuzenduta. Era berean, Ignacio Martinezek "La Cooperación Internacional ante un contexto global de cambios profundos: Una mirada al caso vasco" tesia defendatu zuen, Koldo Uncetak zuzendua. Bikain Cum Laude kalifikazioa jaso zuten biek.

Taldeak koordinatutako *Garapenerako politiken koherentzia* ikastaroari eutsi zaio, IVAPek Bizkaiko Foru Aldundiko langileei prestakuntza gisa eskainia. Era berean, Agenda 2030ekin eta Europako nekazaritza garapenaren edo politiken finantzaketarekin lotutako udako ikastaroetan parte hartu da, baita hainbat erakundek (GGKE Koordinakundea, EtiopiaUtopia, UPV/EHU...) antolatutako elkarrizketa mahaietan edo hitzaldietan ere.

Aurten, Ekonomisten Elkargoak Ekonomistak Saria 2019 eman zion Koldo Uncetari; era horretara, bere ibilbidea eta ikerketa ildo horietan egindako lana aitortu zaizkio.

Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren 2018ko proiektuei buruzko datuak eguneratu ziren (<http://euskalankidetzaren.hegoa.ehu.es/es/site>). Bertan, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek, hiriburu eta udalek eta Euskal Fondoak 2014tik finantzatutako proiektuei buruzko informazio harmonizatu jasotzen da.

3. Actividades de investigación

Andrés Fernando Herrerak eta Eduardo Malagónek Agenda 2030 eta elikagaien soberania gaiei buruzko *Hegoak Zabalduzen* bi monografikotan parte hartu dute, eta nabarmentzekoa da, halaber, *Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo* aldizkariaren ale monografiko batean ere parte hartu dutela, gizarte zibilaren eta garapenerako agenda globalaren inguruan.

Kideak: Jorge Gutiérrez (ikertzaile nagusia), Yesica Álvarez, Iratxe Amiano, Andrés Fernando Herrera, Irati Labaien, Eduardo Malagón, Ignacio Martínez, M.^a José Martínez, Michel Sabalza, Koldo Unceta, Unai Villena, Idoye Zabala.

Garapenari buruzko Ikasketen Nazioarteko V. Biltzarra, 2020 (Exp. 2019/00870)

Taldeko zenbait kide REEDES erakunde-ko Zuzendaritza Batzordeko kide dira, eta 2019an Jorge Gutiérrez izan zen bertako lehendakari. Aldi horretan, REEDES eta Hegoa elkarteek lankidetzan jardun zuten 2020ko maiatzerako aurreikusita zegoen Garapenari buruzko Azterketen V. Nazioarteko Biltzarra (V. CIED) egiteko.

2019an V. CIED prestatzeko lanean jardun da, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzeneko dirulaguntza lortu da, 50.459 eurokoa hain zuzen. Horri esker, Andrés Herrera Idazkaritza Teknikorako kontratatu da, irailean kongresuaren webgunea kaleratu da (<https://vcied.org>) eta laburpenetarako deia egin ahal izan da. V. CIEDeko lehendakaritza M.^a José Martínezek, Jorge Gutiérrezek eta Karlos Pérez de Armiñok osatu dute.

Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak

Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak (PRO-2018K3/0030)

Proiektu hau 2019ko urtarrilean jarri zen abian. Euskal elkartasunaren eta lankidetzaren eragileen gaitasunak sendotu nahi ditu, garapenerako alternatibei buruzko eztabaidak eta nazioarteko lankidetzako esku-hartzeetan dituzten inplikazioak kritikoki ulertzeko, postgarapenaren ekarpenetatik abiatuta eta, zehazki, pentsamendu kolonialetatik, ekologistetatik eta feministetatik abiatuta.

Lantzen ari diren ikuspegiak honakoak dira: postgarapena eta beste aukera praktikoko batzuk; feminismoak eta bizitzaren jasangarritasuna; eta jasangarritasun ekologikoa. 2019an, gogoeta eta eztabaida prozesu bat jarri zen abian, hiru ikuspegi horietatik zetozen proposamenei heltzeko, hiru eztabaida foro birtualen bitartez (ikuspegi bakoitzeko bat). Foroetan, garapenaren kontzeptuari ikuspegi horietako bakoitzetik egindako kritikak aurkeztu ziren, eta garapen ereduari buruzko alternatiba errealak eraikitzeko aukera aztertu zen. Gai bakoitzean erreferente diren hainbat lagunek parte hartu zuten: EHUko eta Espainiako eta Latinoamerikako unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileak, GGKEetako langileak, nazioarteko lankidetzaren arloko erakunde publikoetako langileak eta gizarte mugimenduetako kideak.

Foroetan, proiektuaren gainerako kideek gogoeta egiteko oinarria finkatu zen. Sortutako eztabaidatik abiatuta, 2020an hiru jardunaldiko ziklo bat antolatzeko

oinarrizko dokumentuak osatu ziren; hiru al-dizkari monografikotan landu beharreko gaiak identifikatu ziren; UPV/EHUko gradu-ikasleentzako ikastaro birtual batean landu beharreko edukiak identifikatu ziren; eta sei dokumental eta bederatzi kasu azterketa egiteko esparru teorikoak finkatu ziren.

2019. urtean, aurrera egin zen aipatutako osagaietan, eta nabarmentzekoak dira, abenduan, *Emergencias epistémicas de modelos alternativos al Desarrollo: El Sumak Kawsay y el Buen Vivir en Ecuador* kasuaren azterketa, Ekuadorreko Unibertsitate Zentraleko irakasle Cesar Carranza Baronarena; eta Yésica Alvarezen *Postdesarrollo, pluralismo político y derechos indígenas* liburua.

GLEAren finantzaketa 212.892,25 eurokoa da.

Parte hartzaile eta kolaboratzaileak: Iker Etxano, Yenifer García, Juan Tellería, Leticia Urretabizkaia, Unai Villalba eta Yésica Álvarez.

Hezkuntza

2019. urtea jarduera handiko urtea izan da hezkuntzan, jarraian deskribatuko diren hainbat hitzarmen eta proiektu gauzatu direlako eta prestakuntza jarduera, hitzaldi, tailer, mintegi, etab. ugari egin direlako.

Otsailaren 22an, Gema Celorio gure lankideak Garapenerako Lankidetzaren Deszentralizatua saria jaso zuen, 1989. urteaz geroztik Garapenerako Hezkuntzan egindako irakaskuntza eta ikerketa ibilbidea aintzatesteko. Otsailaren 21ean eta 22an Palman egindako *Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren XII. Topaketa*ren esparruan eman zitzaion saria.

Parte hartzaile eta kolaboratzaileak: Gema Celorio, Juanjo Celorio, Amaia del Río, Joseba Sainz de Murieta, Pepe Ruiz Osoro, Marta Barandiarán, M.^a Luz de la Cal, Jone Martínez-Palacios.

Hitzarmena VSF-Bidezko Elikadura erakundearekin: Elikadurarako eskubiderako guneak zabalduz eta Garapen Iraunkorra genero ikuspegiarekin, hezkuntza formalaren esparru guztietan

AECIDekin sinatutako hitzarmenari esker, 5 urtez (2015-2019) luzatu da Bidezko Elikadurarekin izandako lankidetzaren genero ikuspegiaduenelikadurazubiranotasunaren gaia bigarren hezkuntzako ikastetxeetan sartzen laguntzeko.

Prozesu horren emaitza gisa, ikastetxeen sareak guztira 165 eskola eta institutu biltzen ditu *AlimentAcción* programaren inguruan. Programa horri esker 4 autonomia erkidegotako institutu etako irakasleei lagundu ahal izan zaie (Katalunia, Euskadi, Balear Uharteak eta Valentzia). Eta, horrez gainera, aholkularitza puntuala eta erantzun espezifikoa eman zaizkie Gaztela-Mantxako, Madrilgo eta Andaluziako zentroei.

Bidezko Elikadurako eta Hegoako talde teknikoek honako lan hauek egin dituzte:

■ Bisitak, bilerak eta taldeko plangintza guneak institutu bakoitzeko irakasleekin.

■ Ikastaro eta prestakuntza erregularrak garatzea, batzuk egokituak eta ikastetxean kokatuak, beste batzuk orokorrak eta hainbat hezkuntza erakunde eta/edo lurraldetako irakasleei zuzenduak.

■ Ikasleei zuzendutako jarduerak antolatzea: tailerrak, erakunde aliatuetako per-

3. Ikerketa jarduerak

tsonen hitzaldiak, udalerriko nekazaritza ustiategietara bisitak...

■ Hiruhileko baterako edo ikasturte osorako curriculum plangintzak, irakasleekin batera eginak, elikaduraren gaia dagokion curriculumarekin lotzeko helburuarekin.

■ *AlimentAcción* Sarea sendotzea, 3.0 webgunea abian jarritz (www.alimentacion.net) eta tokian tokiko eta estatuko jardunaldiak eta topaketak antolatuz, sareko irakasleen artean esperientziak trukatzeko.



Hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea: Lehen hezkuntzako zentroetan elikadura burujabetza genero ikuspegitik txertatzeko esparru teoriko-pedagogikoa.



■ Material didaktikoak sortzea, besteak beste aipagarriak dira lehen eta bigarren hezkuntzako esparru teoriko-pedagogikoak eta curriculumak eredu adieraztea, baita bi etapa horietarako ere. Esparru pedagogiko horiek bi argitalpenetan atera dira, eta bietan Gema Celorio Díaz izan da egilea:

Dakiguna jaten dugul!: Ordua, jantokia eta gela ikastetxean bertan eta inguruarekin integrazteko proposamena: Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailarako curriculum enxerplifikazioa.



Oso positibotzat jotzen ditugu bai Bidezko Elikadura erakundearekiko aliantza, bai urte hauetan ikastetxeekin garatutako programa, eta iritzi berekoak dira parte hartu duten irakasleak ere, irakasleek helarazi dizkiguten ebaluazioen bidez egiaztatutakoaren arabera.

**Hitzarmena Bidezko Elikadurarekin:
Elikadurarako eta Garapen
Jasangarrirako eskubidea genero
ikuspegiarekin sartzea, Lanbide
Heziketako 6 familiatan**

AECIDek 2019-2022 aldirako finantzaturako hitzarmen honen helburua da *Alimentación* programari jarraipena egitea eta haren irismena hezkuntza formalaren eremura zabaltzea, Lanbide Heziketako (LH) ikastetxe berriak sartuz lehen hezkuntzako eskolek eta bigarren hezkuntzako institutuak osatutako sarean.

Zehazki, dagoeneko LHko 23 zentrokekin ari gara lanean hitzarmenak hartzen dituen lurraldeetan: Andaluzia, Aragoi, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Euskadi, Balear Uharteak eta Madril. Sei dira inplikaturako lanbide arloak: Nekazaritza, Ostalaritza eta Turismoa, Elikagaien Industriak, Itsasoa eta Arrantza, Osasuna eta Gizarte eta Kultura Zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak. Ikastetxe horiekin laguntza lanari ekin zaio, eta horren baitan sartzen dira aholkularitza, irakaskuntza arautuan sartzeko curriculum programazioetarako laguntza eta jardueren diseinua.

Irakasleak elikadura subiranotasunaren esparru teorikoan trebatzeko prestakuntza jarduerak ere hartzen ditu programak bere baitan, eta orobat metodologia parte hartzaileak eta hezkuntza berrikuntzako proiektuak sartzeko jarduerak biltzen ditu. Aurten, egituraren diseinua amaitu da, eta irakasleen prestakuntza zentrokekin harremanetan jarri gara, autonomia erkidego bakoitzeko ikastaroak homologatzeko eta aitortzeko.

Programaren ardatzetako bat ikastetxeek Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eremuan diharduten enpresekin harremana izan de-

zaten sustatzea da. Asmoa da enpresa horiekin akordioak sustatzea, praktiketako ikasleak har ditzaten. Dokumentu batean bildu dira modalitate horretako prestakuntza bideratzeko irizpide etiko-pedagogikoak.

Azkenik, baliabideak hautatzeko eta sortzeko lanari ekin zaio –moduluen eta lanbide familien arabera antolatuta–, eta horiekin programa garatzeko tresna lagungarri gisa eskainiko diren tresnen kitak prestatu dira.

**Hitzarmena Bidezko Elikadurarekin:
Guraso eskola, elikadura osasuntsu
eta jasangarria sustatzeko GJHeekin
bat eginez**

Hitzarmen hau, AECIDek finantzatu du 2019-2022 aldirako, eta familiei laguntza eman nahi die elikadura trantsizioko prozesuei ekin diezaioten, bai etxetan, bai ikastetxeetan. Lan zuzenena bere erakunde egiturekin –Gurasoen Elkartek (EGE) eta IGE Federazioak– antolatuz bideratuta dago, Ikasleen Guraso Elkarteen Espainiako Konfederazioaren (CEAPA) bidez. Aliantza hori estrategikotzat jotzen dugu, elikadurarako eskubidea eta elikadura burujabetza bermatzen duten elikadura ereduakiko konpromisoan inplikatu ahal izateko familiak.

Aurten, hitzarmen honek eragin zuzenena duen lurraldeetan hasi gara lanean, hain zuzen ere, Andaluzian, Aragoian, Euskadin, Balear Uharteetan, Madril eta Valentzian. Dena den, Kanarietan eta Gaztela-Leonen ere aurreikusten dira zenbait esku hartze.

CEAPak eta haren FAPak definitutako Eskola Elikaduraren Eredu baten osaeran parte hartu dugu, elikaduraren inguruko arazo sozialak eta ingurumenaren alorre-

3. Ikerketa jarduerak

koak ezagutzera emateko eta hobetzeko zer aukera dauden ezagutarazteko. Aurtun, CEAPAKo jantokien batzordeak egin dako oinarrizko dokumentu bat idazten lan egin da. Zirriborroa nahiko aurreratuta dago, eta federazioen ekarpenekin kontrastatzen eta aberasten ari da.

Hainbat prestakuntza proposamen egin dira Familia Eskolen bitartez; horietan parte hartu dute guraso elkarteek eta eskola komunitateek, eta elikadura ohiturei buruz gogoeta egiteko eta horiek berrikusteko eta hobetzeko espazio gisa egituratu dira.

Programa abian jarri dugun IGE bakoitzarentzat berriazko laguntza planak osatzen ari gara, funtsezko eragileak baitira eskolako elikadura hobetzeko prozesuetan.

Datozen urteetan, ekintza motak zabaltzen joango gara, eskolako elikadurari buruzko diagnostiko azterketen bitartez, eta orobat zabaltzen joango gara esku hartuko duten eragileen multzoa, sukaldaritzako enpresa txiki eta ertainetan eta irakasleen artean txertatzeko, horiek gai baitira eskolako jangelak hezkuntza eremu bihurtzeko, eta ez zerbitzua eskaintzen duten gune hutsak.

Hariak Ehunduz II. Unibertsitatean hezkuntza askatzaileko proposamenak taldean eraikitzea (PRO-2017K3/0010)

2019an amaitu da GLEAK finantzatutako proiektu hori, 226.295,72 euroko dirulaguntzarekin. 2019ko lanari esker, eztabaidarako eta eraikuntza kolektiborako partaidetza espazioak sortu ahal izan dira –unibertsitateko eta gizarteko eragileekin lankidetzan–, eta, era horretara, lotu ahal izan dira hezkuntza askatzailearen ikuspegia eta bizitzaren jasagarritasunarekin

konprometituta dagoen unibertsitatearen borondatea islatuko duten curriculum garapenak.



Martxoan *Hariak*. *Recreando la educación emancipadora* aldizkariaren 7. zenbakia argitaratu genuen, ikerketa-ekintza-partaidetzan zentratuta; horizontalean eta modu kolektiboan eraikitzen duen tresna gisa agertzen da ezagutza, nahiz eta unibertsitatearen esparruan ez izan ohiko jarduna. Irailean, 8. zenbakiarekin, unibertsitatearen –deriba ultrakontserbadorea geldiarazteko gai den eta gizarte aldaketarekin konprometitu dagoen unibertsitatearen– eta gizartearen arteko loturan sakondu dugu.

“Askotariko ikuspegiak uztartzea. Epistemologia kritikoak, praktika unibertsitarioak dekonstruitzeko” mintegiarekin batera ekimen horretara gonbidatutako pertsonen esku-hartzeak erakusten dituen bideoa editatu genuen. Parte hartzaileek erakutsi zizkiguten irakaskuntza eta iker-

keta esperientziak unibertsitateko pentsamendu askatzailearen erakusgarri interesgarriak dira.

Ikerketa kritikoa, eztabaida eta gizarte konpromisoa ikerlan akademikoetan: Ekarpinak, talde-erakuntzako esperientzia batetik (Amaia del Río eta Gema Celorio) koadernoak graduko eta graduondoko ikasleei zuzendutako mintegien sistematizazioetik abiatuta sortu zen, hezkuntza kritikoa ikuspegitik beren ikerketa lanak orientatzeko. Dokumentu horren helburua izan da unibertsitatearen komunitatean prestakuntza esperientzia horren berri ematea eta gogoeta egitea subjektu politikoak zein diren eta zer rol bete beharko luketen gaiari buruz, garatutako metodologiaren inplikazioei buruz, ekimen honen oinarri izan ziren ekarpenei buruz eta prozesuaren ikaskuntza garrantzitsuenei buruz, oro har.



Prozesu horren barruan, 4 irakaskuntza gida egin ditugu, *Hezkuntza emantzipatzailea eta pedagogia kritikoa* ikastaroa osatzen dutenak. Gida horietako bakoitza modu independentean landu liteke eta eskuratutako ikaskuntza maila ezagutu daiteke, autoebaluazio ariketa baten bidez. Ariketa horretan, ikuspegi feministen zeharkakotasuna, kulturartekotasun kritikoa eta ikuspegi dekoloniala funtsezko elementuak dira proposamen honen zentzuari dagokionez.



3.2. Beste ikerketa jarduerak

Agricultores Familiares, Innovación y mercados. FONTAGROk (Banco Interamericano de Desarrollo) finantzaturako proiektua. Iraupena: 2017ko apirila – 2020ko abendua. Hegoako ikerketa taldea: Mirene Begiristain Zubillaga eta Eduardo Malagón Zaldua.

Modelización y análisis de impactos sociales ligados a la Huella Ambiental Corporativa de la UPV/EHU, mediante Soca, OpenLCA y Ecoinvent. Ikerketa proiektua: EHU-Aztarna. Erakunde finantzatzailea: Iraunkortasuneko Zuzendaritza, UPV/EHU. Iraupena: 2017-11-01 / 2019-09-30 (luzatua).

La construcción social de la calidad alimentaria: mediaciones entre la producción y el consumo en una economía basada en el

3. Ikerketa jarduerak

conocimiento. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren Estatuko Ikerketa Agentziak finantzatua (RETOS deialdia. Iraupena: 2018ko ekaina – 2020ko Abendua. Hegoako ikerketa taldea: Mirene Begiristain Zubillaga eta Eduardo Malagón Zaldua.

3.3. Doktorego tesiak

2019an Hegoa Institutuan defendatutako doktorego tesiak

AMIANO BONACHEA, Iratxe: “La Responsabilidad Social Universitaria desde la perspectiva de la pertinencia social: Mecanismos de interlocución con la sociedad en el caso de las universidades españolas”. Tesiaren zuzendaria: Koldo Unceta Satrustegui eta Jorge Gutiérrez Goiria. Defentsaren data: 2019ko ekainak 11. Kalifikazioa: Bikain *cum laude*.

LINARES QUERO, Alba: “Resistencia comunitaria no-violenta y construcción de paz positiva: análisis de los factores favorecedores de la estrategia no-violenta del movimiento indígena del Norte del Cauca, Colombia (1971-2016)”. Tesiaren zuzendaria: Karlos Pérez de Armiño. Defentsaren data: 2019ko uztailak 29. Kalifikazioa: Bikain *cum laude*.

MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Ignacio: “La Cooperación Internacional ante un contexto global de cambios profundos: Una mirada al caso vasco”. Tesiaren zuzendaria: Koldo Unceta Satrustegui. Defentsaren data: 2019ko urriak 21. Kalifikazioa: Bikain *cum laude*.

Doktorego Programan matrikulatutako doktore tesiak

Hegoaren *Garapenari buruzko Ikasketak* Doktorego Programan (UPV/EHU), 80 tesi daude guztira 2019-2020 ikasturtean matrikulatuta, eta horietatik 13 matrikulatu dira 2019ko deialdian. 6 EAEkoak ziren eta 7 Latinoamerikakoak.

3.4. Nazioarteko batzorde eta ordezkarietako partaidetza

Revista Economía batzorde zientifikoa, Ekuador.

Almenara, Revista Extremeña de Ciencias Sociales batzorde zientifikoa.

International Studies Association (ISA) elkartearen *Feminist Theory and Gender Studies (FTGS)*, batzorde betearazlea.

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako programaren hautaketa batzordea.

Inguruak. Soziologia eta Zientzia Politikoen Euskal Aldizkaria aldizkariaren aholkularitza batzordea.

Lan Harremanak/Revista de Relaciones Laborales aldizkariaren aholkularitza batzordea.

Revista Española de Sociología aldizkariaren aholkularitza batzordea.

Revista Académica de Relaciones Internacionales aldizkariaren aholkularitza batzordea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Saila.

Sociología del Trabajo aldizkariaren aholkularitza batzordea.

Commons. Revista de Comunicación y Ciudadanía Digital aldizkariaren argitalpen batzordea.

Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo aldizkariaren editore batzordea eta argitalpen batzordea.

Mundos Plurales aldizkariaren argitalpen batzordea, Ekuador.

Praxis Pedagógica aldizkariaren argitalpen batzordea, Kolonbiako Uniminuto Unibertsitatea.

Documentación Social aldizkariaren erre-dakzio batzordea.

Red Española de Estudios del Desarrollo (REEDES) sarearen zuzendaritza batzordea.

Sociedad de Economía Mundial (SEM) elkartearen zuzendaritza batzordea.

Euskadiko Red de Economía Alternativa y Solidaria (REAS) sarearen zuzendaritza batzordeko lehendakaritza.

Red Española de Estudios del Desarrollo (REEDES) sarearen zuzendaritza batzordeko lehendakaritza.

3.5. Hitzaldiak eta komunikazioak

AMIANO, Iratxe: Mesa dedicada a la “Ética del desarrollo”, participación como ponente, *VIII Congreso Universidad y Cooperación al Desarrollo. Conocimiento y compromiso social ante los retos globales*, Rede Galega de Cooperación

Universitaria ao Desenvolvimento (RG-CUD), Santiago de Compostela, azaroak 27-29.

BIDAURRATZAGA, Eduardo, COLOM, Artur, ZABALO, Patxi: “Implicaciones para Centroamérica del Acuerdo de Asociación con la Unión Europea”, *XXI International Congress of the World Economy Society / XXI Reunión de Economía Mundial*, Covilha (Portugal), ekainak 12-14.

CELORIO, Gema: “Educación militante comprometida con la transformación social”, txostena *XIX Congreso Internacional de Investigación Educativa* Biltzarreko mahai-inguruan, Ira ponencia en mesa redonda en el *XIX Congreso Internacional de Investigación Educativa*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Irakasleen Prestakuntza eta Hezkuntza Fakultatea, Madril, ekainak 20.

GONZÁLEZ ORTEGA, Nerea: “Políticas locales para combatir la islamofobia y de integración de las comunidades árabe-musulmanas en el País Vasco”, *IX Congreso de migraciones 2019*, Bartzelona, irailak 4-6.

JUBETO, Yolanda, LARRAÑAGA, Mertxe: “Reflexión sobre experiencias vascas en Presupuestos con Enfoque de Género”, *VI Congreso de Economía Feminista*, Valentzia, irailak 5-7.

MARTÍNEZ TOLA, Elena, BIDAURRATZAGA, Eduardo, GAINZA, Xabier, GUTIÉRREZ, Jorge, ZABALO, Patxi, ZUPIRIA, Luis María, ZURBANO, Mikel: “Recursos digitales para la enseñanza de economía mundial y procesos de desarrollo (EKOMUNDU)”, *XVI Foro Internacional sobre la Evaluación de la Calidad de la Investigación y de la Educación Superior (FECIES)*, Santiago de Compostela, maiatzak 29-31.

3. Ikerketa jarduerak

MARTÍNEZ TOLA, Elena, LARRAÑAGA, Mertxe, JUBETO, Yolanda, DE LA CAL, M.^a Luz: "Dificultades e impacto profesional de la conciliación en una comarca industrial de Gipuzkoa", *VI Congreso de Economía Feminista*, Valentzia, irailak 5-7.

MUJIKI CHAO, Itziar: "Exploring Kosovo's legacy on the international Women, Peace and Security Agenda", *International Studies Association 60th Annual Conference. Re-visioning International Studies: Innovation and Progress*, Toronto (Kanada), martxoak 30 - apirilak 4.

MUJIKI CHAO, Itziar: "'Why are you asking this'? On asking the same questions a million times and understanding the reactions", *International Studies Association 60th Annual Conference. Re-visioning International Studies: Innovation and Progress*, Toronto (Kanada), martxoak 30 - apirilak 4.

MUJIKI CHAO, Itziar: Mahai-inguru hone tan parte hartzea: "Feminist Research in Conflict and Post-Conflict Spaces: Characteristics, Difficulties, Methods", *International Studies Association 60th Annual Conference. Re-visioning International Studies: Innovation and Progress*, Toronto (Kanada), martxoak 30 - apirilak 4.

MUJIKI CHAO, Itziar, ZIRION LANDALUZE, Iker: "Epistemological and ethical 'headaches'. Comparing peace (and conflict) research in Kosovo and DR Congo", *European Conference on Politics and Gender*, Amsterdam (Holanda), ekainak 4-6.

MUJIKI CHAO, Itziar: "Gendering Civil Resistance: Exploring Feminist Perspectives on Nonviolent Movements, Dynamics and Methods", *13th Pan European Conference on International Relations. A Century of Show and Tell: The Seen and the*

Unseen of IR, European International Studies Association (EISA), Sofia (Bulgaria), irailak 11-14.

MUJIKI CHAO, Itziar: "Hybrid Moves: Local Women's Organizations' Resisting Dynamics in Peacebuilding", *13th Pan European Conference on International Relations. A Century of Show and Tell: The Seen and the Unseen of IR*, European International Studies Association (EISA), Sofia (Bulgaria), irailak 11-14.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "United Nations Verification Mission in Colombia: Monitoring and supporting a threatened peace process", *13th Pan European Conference on International Relations. A Century of Show and Tell: The Seen and the Unseen of IR*, European International Studies Association (EISA), Sofia (Bulgaria), irailak 11-14.

VILLALBA-EGUILUZ, Unai: "Desafíos de las políticas de Economía Social y Solidaria en Ecuador para avanzar hacia el Buen Vivir", *Desafíos de la Economía Solidaria y Comunitaria. Acercamientos conceptuales desde las experiencias Nazioarteko Mintegia*, Universidad Central del Ecuador, Quito (Ekuador), martxoak 27-29.

VILLALBA-EGUILUZ, Unai; EGIA-OLAIZOLA, Andoni; PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos: "Sistemas Locales de Economía Social y Solidaria. Innovación, Sostenibilidad, Equidad e Inclusión", Nazioarteko hitzaldia: *La Implementación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible: ¿Qué papel desempeña la Economía Social y Solidaria?*, UNRISD eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko Nazio Batuen Erakundearteko Lan Taldea (UNTFSSSE), Geneva (Suitza), ekainak 25-26.

ZIRION LANDALUZE, Iker: "Beyond militarized masculinities. Heterogeneous

Masculinities in the conflict-prone Kivus”,
European Conference on Politics and Gender, Amsterdam (Holanda), ekainak 4-6.

ZIRION LANDALUZE, Iker: “Aplicación en España de obligaciones internacionales sobre violencia contra las mujeres: el dictamen del Comité de la CEDAW en el caso ‘Ángela González Carreño’”, *V Encuentro Poder Judicial-Universidad: Mujeres y derecho: Justicia en clave de género*, Bilbo, urriak 8-9.



4. Argitalpenak

4.1. Liburuak

BARBEITO THONON, Cecile: "Herramientas de análisis y planificación 'sensible al conflicto' para donantes y ONGD = 'Gatazkarekiko sentikorrek' diren azterketa eta plangintzarako tresnak, emaile eta GGKEentzat", *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak*, Hegoa, Bilbo.

CASADO, Beatriz (koord.): *Sistematización de la experiencia Baserritik Mundura: Formación e investigación para la Soberanía Alimentaria = Esperientziaren sistematizazioa Baserritik Mundura: Elikadura burujabetzarako prestakuntza eta Ikerketa*, Hegoa, EHNE Bizkaia, Bilbo.

CASTAÑEDA SALGADO, Martha Patricia et al.: *Otras formas de (des)aprender: Investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*, Hegoa, SIMReF, Bilbo.

CELORIO DÍAZ, Gema: *¡Comemos lo que sabemos!: Una propuesta para integrar huerto, comedor y aula en el centro y con el entorno: Ejemplificación curricular 5º y 6º de primaria = Dakiguna jaten dugul!: Ortu, jantokia eta gela ikastetxean bertan eta inguruarekin integratzeko proposamena: Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailarako curriculum-exemplifikazioa = Mengem el que sabem!: Una proposta per integrar hort, menjador i aula a l'escola i amb l'entorn: Exemplificació curricular 5è i 6è de primària*, Bidezko Elikadura VSF, Hegoa, Bilbo.

CELORIO DÍAZ, Gema: *Educación crítica y transformadora: Marco teórico-pedagógico para integrar la soberanía alimentaria con enfoque de género en los centros de primaria = Hezkuntza kritikoa eta eral-*

datzailea: Lehen hezkuntzako zentroetan elikadura burujabetza genero-ikuspegitik txertatzeko esparru teoriko-pedagogikoa = Educació crítica i transformadora: Marc teoricopedagògic per integrar la sobirania alimentària amb enfocament de gènere als centres de Primària, Bidezko Elikadura VSF, Hegoa, Bilbo.

DEL RÍO, Amaia; CELORIO, Gema: *Indagación crítica, diálogo y compromiso social en los trabajos de investigación académicos: Aportes desde una experiencia de construcción colectiva = Ikerketa kritikoa, eztabaida eta gizarte-konpromisoa ikerlan akademikoetan: Ekarpinak, talde-eraikuntzako esperientzia batetik*, Hegoa, Bilbo.

MENDIA AZKUE, Irantzu; GUZMÁN ORELLANA, Gloria: "Enfoque de género en los conflictos: hacia una cooperación internacional convergente con la acción feminista por la paz y contra la impunidad = Genero-ikuspegia gatazketan: bakegintzaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako ekintza feministarekin bat egiten duen nazioarteko lankidetzarantz", *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak*, Hegoa, Bilbo.

MUJICA CHAO, Itziar: "Cooperación y solidaridad internacional con experiencias de resistencia civil no violenta y su relación con la construcción de paz = Nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuna indarkeriarik gabeko erresistentzia esperientziekin eta hauen harremana bakegintzarekin", *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak*, Hegoa, Bilbo.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: *Mundu-ikuskerak. Nazioarteko Harremanetako korronte teorikoak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos; ZIRION LANDALUZE, iker (koord.): *Pax Crítica. Aportes teóricos a las perspectivas de paz pos-liberal*, Tecnos, Madril.

PUERTA, Carlos et al.: *Sistemas alimentarios: Efectos sobre nuestra salud y la del planeta = Elikadura-sistemak: Gure osasunean eta planetan dituzten ondorioak = Sistemas alimentaris: Efectes sobre la nostra salut i la del planeta*, Bidezko Elikadura VSF, Hegoa, Bilbo.

RODRÍGUEZ TRIANA, Tania: "Construcción de paz con poblaciones indígenas en contextos interculturales = Herri indigenekin bakegintza kulturarteko testuinguruetan", *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak*, Hegoa, Bilbo.

SIBRIAN, Anabella; MARTIN BERISTAIN, Carlos: "Apoyo a víctimas y a defensores y defensoras de derechos humanos: Desafíos al deber de acompañamiento de la comunidad internacional = Biktimen eta giza eskubideen defendatzaileen babesa: Nazioarteko erkidegoak duen akonpainamendu-betebeharra betetzeko erronkak", *Guías para una cooperación sensible al conflicto = Gatazkarekiko sentikorra den lankidetzarako gidak*, Hegoa, Bilbo.

VELÁSQUEZ NIMATUJ, Irma Alicia: "La justicia nunca estuvo de nuestro lado": *Peritaje cultural sobre conflicto armado y violencia sexual en el caso Sepur Zarco, Guatemala*, Hegoa, Bilbo.

4.2. Hegoa lan koadernoak

MARTÍNEZ MACÍAS, Paloma: "El impacto del asociacionismo en el empoderamiento de las mujeres y de su comunidad: Los centros de madres de Dajabón (República Do-

minicana)", *Hegoa lan koadernoak*, 78. zk., Bilbo.

CASTAÑEDA SALGADO, Martha Patricia: "Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak", *Hegoa lan koadernoak*, 79. zk., Bilbo.

GÓMEZ CORREAL, Diana Marcela: "Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra", *Hegoa lan koadernoak*, 79. zk., Bilbo.

CARRANZA BARONA, César: Emergencias epistémicas de modelos alternativos al Desarrollo: El Sumak Kawsay y el Buen Vivir en Ecuador, *Hegoa lan koadernoak*, 80. zk., Bilbo.

4.3. Hegoak Zabalduz

ARESKURRINAGA MIRANDONA, Efreñ; BEGIRISTAIN ZUBILLAGA, Mirene; MALAGÓN ZALDUA, Eduardo: "Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak", *Hegoak Zabalduz 10*, Hegoa, Bilbo.

HERRERA HERRERA, Andrés Fernando: "2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena", *Hegoak Zabalduz 11*, Hegoa, Bilbo.

MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone; ORMAZABAL GASTON, Andere; AHEDO GURRUTXAGA, Igor: "Gobernantza eta herritarren partaidetza", *Hegoak Zabalduz 12*, Hegoa, Bilbo.

MUJIKA CHAO, Itziar; ZIRION LANDALUZE, iker: "Gatazka armatuak, bakea eta garapena", *Hegoak Zabalduz 13*, Hegoa, Bilbo.

4. Argitalpenak

